

## EAJk eta PSEek Udaltzako mahaian ez dute ez seriotasunik ez gaitasunik erakutsi eta %83tik gorako ordezkariak duen gehiengo sindikalaren iritzia kontra ari dira gatazka luzarazten



Gaurko egunez bildu da berriz Udaltzako berria negoziatzeko mahaia, ekainaren 4an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udaletako langileok greba egin ondoren. Ekainaren 4ko greban langileok argi utzi genuen aurreakordioa erdiesteko mahaian funtsezko eduki batzuk falta zirela eta beste eduki batzuetan zehaztasunak eskatzen genituela.

Bada, EUDL bere etxeko lanak egin gabe etorri da. Bere lehendakariak duen EAJ gaurko mahaian orain hamabost egun izan genuen berdina errepikatzen etorri da, ez dute erabakirik hartu, seriotasunik gabe ari dira eta badirudi negoziatzeko gaitasuna faltan dutela. Batetik, atzoko egunez izan zuten Batzorde Exekutiboan ez zuten erabaki Udaltzako berriaren aurreakordiorako euskararen gaian zein zerbitzu publikoen kudeaketarako eredu proposamenean zein den Eudelen proposamen bateratua. EHBilduren proposamena mahaiaren ordezkariaren %83,4k babesten dugun arren, Eudelen ordezkariak duten EAJk eta PSEek erabaki zuten proposamen horri kontra

LABek oso larritzat jo dugu EAJk eta PSEek euskararen eta zerbitzu publikoen kudeaketan gehiengo sindikalak babesten ez duen proposamena inposatu nahi izana eta mahaitik alde egin dugu proposamen hori atzera botatzea eskatuz.

bozkatzu biderik ez ematea eta langileen hitza ez errespetatzea. Nahiago izan dute erabakirik ez hartzea eta gatazka bere horretan mantendu eta luzatzea.

Bi gai hauetan, esan bezala, orain arte bi proposamen aurkeztu dituzte, bata EAJ-PSEek eta bestea EHBilduk. Gaurko mahaian Eudelen lehendakariak duen EAJk bere proposamena berriro ere inposatu nahi izan digu: batetik, euskarari lotuta hizkuntza-eskakizunak lanpostu berri guztiei eskatu ordez errealitate soziolinguistikoaren araberrako derrigortasun indizea inposatzea gehienezko gisa; eta bestetik, zerbitzu publikoen azpikontratazioa bultzatzen jarraitu nahi duena, publikazioa eta zerbitzu horretako langileak subrogatzea onartu gabe. Gai hau hainbatetan eztabaidatu dugu eta mahaian gehiengo oso zabalak EHBilduren proposamena negoziatzeko oinarritzat hartzea adierazi du behin eta berriz. Badirudi EAJk gai hau baliatu nahi izan duela Eudelen erabakirik ez hartzeko, seriotasunik eta ardurarik gabe jokatzeko, eta negoziatzeko gaitasun eza erakusteko.

LABetik aurreko mahai negoziatzailean eta ekainaren 4ko greba aurretik ere, proposamen oso zehatza egin genuen: Eudelen aurre-akordioari proposamenak aurkeztu genizkion eta negoziazioari bide emateko beste bilera bat egitea eskatu genuen. Bilerari EAJk ezezkoa eman zigun mahaiari, aste bat beranduago zuten Batzorde Exekutiboan erabakia hartu behar zutela argudiatuz.

Seriotasun eta gaitasun falta honen aurrean LABetik gaurko mahai utziko genuela iragarri dugu eta adierazi ez dugula egoera larri honen aurrean mahaiak jarraitzeko baldintzarik ikusten. EUDELen lehendakaritza duen EAJri bi gai horiek langileon ordezkaritzaren gehiengo errespetatuz ahalik eta azkarren ebazteko eskatu diogu. Horretaz gain, negoziatzeko borondate osoa zein uda bitarte biltzeko prestutasuna adierazi dugu.

Gaurko mahaiaren iraupena oso laburra izan da, esan bezala, aurrera egiteko baldintzarik ez zegoelako. Borrokan ari garen gehiengo sindikalak lortu dugure eskariari jarraituz EUDELek konpromisoa hartzea bi gai horietan datorren ekainaren 19arako proposamen bateratua aurkezteko eta hurrengo mahai negoziatzailea biltzeko. Eta horretaz gain, beste bi bilera egiteko egutegia adostu dugu.

Gainera, aurreakordioari begira, gaur landu ez den arren, testuak orainoz ez ditu jaso LABentzat ezinbestekoak diren eduki hauek:

- Indarraldia: 6 urteko indarraldia oso luzea da eta murriztu behar da. Neurri gehienak oso berandu aplikatzea ekarriko baitu horrek.
- Pribatizazioak gelditzea eta publikazioak egitea bertako langileak subrogatuz (EHBilduren

proposamenarekin bat eginez).

- Enpleguari lotuta: langileen arteko mugikortasunak ahalbidetzea eta lanaldi partzialek %10 ez gaititzea (lehentasunez sektore feminizatuetakoa %100ean osagarrituz). Horrekin batera hautaketa prozesu propioak eta mankomunatuak egitea hauek ordezkaririk adostuz.
- Gazteberitze planak eta aurrez erretiratzeko neurriak zehaztea. Langileei lanera ez joateko askoz denbora gehiago eman.
- Soldatak berreskuratzeko zorra onartzea eta erosahalmena bermatzeko igoerak egiteko tresna ezberdinak adostea. Horien artean karrera profesionala objektiboa eta langile guztiei aplikatu eta ezartzekoa izan dadila.
- Klausula bat ezartzea azpikontrataturiko langilerik ez dadin egon 1500€ren azpitik.
- Euskararen ezagutza eta erabilera bermatzea (EHBilduren proposamenarekin bat eginez).

LABetik benetan uste dugu momentu klabe batean gaudela. Udalhitzen lan-hitzarmen berria lortzeko zein Udalhitzetik kanpo dauden udalen negoziatioetan eragiteko ere momentu garrantzitsua da. Ezezko hauen eta seriotasun faltaren aurrean, langileon indarrarekin presionatzen jarraitu behar dugu. Horregatik LAB sindikatuak orain arteko borroka zikloaren hausnarketa burutuko dugure udal ordezkaririk guztiekin eta aurrera begirako borroka planteamenduak zehaztuko ditugu. **Orain da momentua, borroka merezi du eta alderdi politikoak gehiago mugiarazi behar ditugu!**